


# Denbora-


## 1 Puzzlea

Kaixo, lagunak! Haginzorrotz marrazoa naiz, eta ozeanoaren erdian bizi naiz, arrainez inguraturik. Hona nire bizileku ederraren argazkitxo bat.


Irudia osorik ikusteko, argazki zatiak bere lekuan ipini beharko dituzue.



Koka ezazu lauki bakoitza dagokion lekuan.



Erantzunak: 1.-1-H, 2-A, 3-E, 4-G, 5-F, 6-D, 7-B, 8-C, 9-I 3.-1-F, 2-A, 3-B, 4-H, 5-G, 6-D, 7-C, 4.-Palmondo bat, 5.-F



## 2 Aurkitu irudian

Sorginak erratz gainean joan dira akelarrera, eta kobazulo sarreran utzi dituzte erratz guztiak. Hiru erratz berdinak dira. Zein, baina?

# - pasak


## 3 Hitzekin jolasean

Bi zutabeetan hitz berberak daude idatzita. Eskuinekoan, baina, hizkiak nahasi ditu Janire bihurriak.

Lotu hitz berdinak.



1	GITARRA
2	I HARDETSI
3	LAINOTSU
4	ZABALKUNDE
5	JAURTIKETA
6	ZIRIKATZAILE
7	ERANTZULE

a	ISTEDRAHI
b	USTONIAL
c	ELUZTNARE
d	ELIAZTKIRAIZ
f	ARRATIG
g	ATEKITRUAJ
h	EDNUKLABAZ



## 4 Puntuak lotu

Manex udako oporretarako asmoak zehazten hasi da dagoeneko. Nora joango den jakin nahi al duzue? Hala bada, lotu puntuak, eta argibide gehiago izango dituzue.



## 5 Itzalak

Elbira dortokak eguzkitan egotea maite du. Asmatuko al zenuke itzal hauetatik zein den Elbirarena?

## Txanpon hegalarriak

Oso joko sinplea da; baina ez, haatik, erraza. Zenbat eta gehiago entrenatu, are eta hobeto arituko zarete

**1** Jokalariak besoa tolestu behar du, bere sorbalda ukitu arte. Ondoren, ukondoa igoko du, besağaina horizontalean geratu arte (marraxkian agertzen den moduan kokatu besoa).

**2** Besoa horrela daukanean, txanpon bat ezarriko du ukondoan. Mugimendu azkar bat egin eta txanpona esku horrekin hartzea da gakoa.

**3** Helburua lortzen bada, bi txanponekin gauza bera egitea izango da hurrengo pausoa.

**4** Bakarka edo taldeka joko daiteke joko honetara. Lagun batek baino gehiagok parte hartzen badu, txanpona eskuan hartzea lortzen duen lehenak irabaziko du partida.

